

OHAR LING.: Hemen litekeena da PISU ‘peso’ (AN-lez, Bc, Gc, L-ain) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus PISU) izatea, EL PESO VIEJO izeneko etxea ere bai baitugu (1755, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 25. or. g.). Bestetik, lehen ere aipatua dugun joera, *oa* [ua] egitekoa alegia, Pasaian aspaldi zaharrekoa dugula ematen du: *Pisucua* (1800).

PLANA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Plana, la* (1826, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 80. or. a.); *Plana* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [plánà]

DESK.: Herriaren ekialdean, toki garai batean dagoen zabala. 1760. erako *La Plana* esaten zaio Cayarosa-ren iparrekialdean dagoen zabaldiari (ikus CRAME, P.: *Plano de la Ría y Puerto de los Pasages...*). Larrabidemozpela (M.), Gaztelutxo (HM.) eta (E.)-n duen Planako erreka-ren artean.

OHAR LING.: Baliteke hemen gaskoinerazko PLANE ‘Plaine, surface de terrain uni. N. de l. et de p. *Laplane*’ (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus PLANE) izatea, gaztelerazko *llano*-ren kasuan ez bezala, hura ere latinezko PLANUS-etik (COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus LLANO), PL- hitz hasierako talde kontsonantiko latinoari eusten zaiolarik.

PLANABURUA (S. Juan)

DOK.: *Plana Burua* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 70. or. a.).

OHARR.: Lursaila (1882).

OHAR LING.: PLANA leku-izena + BURU + -A.

PLANAKO ERREKA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Planako erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [plánakòeřekà]

DESK.: Planatik behera, ekialdera jotzen duen erreka. Plana (M.) eta Al-perriturri (I-IE.) ditu mugakide.

PLATA (S. Pedro) (3. Mapa)

DOK.: *Plata* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [plátà]

DESK.: San Pedroko farola dagoen menditxoak itsas aldera daukan mendi bera adina luzeko pareta haundi eta zapala.

Parapleta

OHAR LING.: Lehenagoxe ikusi dugun bezala, ikus PIÑUETAKO PLATA, gaur egun, oraindik ere, arrantzale zaharrek *plata* esaten diete kostaldeko mendietan diren harri haundi eta zapalei. Gaskoin jatorriko toponimo bat izan liteke. 1456an, Errenteria eta Donostiaren arteko Pasaiako portuarekiko auzietan el monte de Pordeplata azaltzen zaigu: “...e los otros deziendo que los sus terminos son fasta el monte de Pordeplata e fasta el dicho monte tienen

juridiçion...” (1456, 1533an egindako trasladoa dugu, EAM.: C Sekz., 5. Ne-
goz., 1. Sail., 1. Libur., 1. Exp., 14. or. a.). V. LESPY eta P. RAYMOND-en
hiztegian, ‘leku zabala’ adieraziaz, PLAT dugu (LESPY V. eta RAYMOND
P.: *Dictionnaire...*, II. T., 170. or.). PALAY-en hiztegian, PLATE ‘Terrain plat
et uni’ (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus PLATE).